



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Esti eta Mikel Markezek edertasun poetiko handiko kontzertu akustikoa eskainiko dute datorren astelehenean Arriaga Antzokiko foyerrean

**Bilbo, 2022ko martxoaren 17a.** Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako "Literatura eta Musika Euskaraz" zikloa Arriagako foyerrera itzuliko da datorren astelehenean, martxoaren 21ean, 19:30etik aurrera.

Esti eta Mikel Markez kantariak grabatutako 'Azal Berritzen' diskoa kalean da jada. Bertan hamar kantu batzen dira, Esti Markezek sortutako bost kantu berri eta Mikel Markezek sortutako beste bost kantu berri. Alegia, diskoaren sorkuntza prozesua erdibana burutu zuten baina bi artistek batak bestearen kantu batzuetan ere parte hartuz, kantari eta jotzaile moduan.

Poeta eta bertsolari garaikideak dira testu gehienen egileak, Mikel eta Esti direlarik bakoitza bost doinuren sortzaileak. Idazleen artean Toti Martinez de Lezea, Pako Aristi, Alaia Martin, Jon Maia edo Joseba Sarrionandia ditugu.

Eta horixe da Arriaga Antzokiak astelehenean eskaintzen duen proposamena, musika-errezitaldi oso atsegina, kalitate akustiko handikoa, eta edertasun poetikoz jantzitakoa, letra oso zainduei esker.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)